

LATINA II

LATÍN II

A MULTZOA: Latinezko testuen hizkuntza-ezaugarriak identifikatzea eta azaltzea.

Multzo honek bi aukera ditu (A.1 eta A.2) eta bakoitzak 7 puntu balio ditu: hauetako **bakar bat** aukeratu behar duzu.

A.1.

1. galdera: Itzul ezazu testu hau (hiztegia erabiliz):

5 puntu

Espartako, K.a. I. mendeko gladiadore eta esklaboa, matxinada famatu baten protagonista izan zen. Gertakari hori artelan askoren gaia izan da (nobelak, poemak, filmak, arte plastikoak) eta erreferentziazko elementua izan da, hala iraganeko nola oraingo gizarte-gatazkei buruzko hausnarketan. Testu hau estuki lotua dago antzinateko iturriek horri buruz esaten digutenari eta, honela, gogorarazten digu zeinen garrantzitsua den honelako berriak helarazten dizkiguten testuak ezagutzea.

Espartakok eta haren jarraitzaileek, nahiz eta baliabide gutxi izan, Erromaren botere militar eskerga arriskuan jartzea lortu zuten.

Cum septuaginta et quattuor gladiatores, duce Spartaco, ex ludo¹ Capuae fugerent, novum bellum commotum est. Et per Italiam vagantes non levius² bellum, quam Hannibal moverat³, paraverunt. Victi sunt in Apulia a M. Licinio Crasso proconsule. (Eutr. VI, 7)

Oharrak

- 1) *ludus*, -i: hemen, 'gladiadore-eskola'
- 2) *levius*: ikus *levis*, -e adjektiboa
- 3) *moverat*: hemen, 'eragin, sorrarazi, piztu'

2. galdera: Egin ezazu *Cum ... commotum est* esaldiaren analisi sintaktikoa, hura osatzen duten sintagmak eta perpausak identifikatuz.

1 puntu

3. galdera: Egin ezazu *fugerent* eta *levius* hitzen analisi morfologikoa.

1 puntu

LATINA II

LATÍN II

A.2

1. galdera: Itzul ezazu testu hau (hiztegia erabiliz):

5 puntu

Antzinetetik bertatik gaur egunera arte, Erromako historia erabili izan da handik ateratzeko eredugarritzat jo diren hiritar-portaeraren adibideak. Marko Atilio Reguloren bizitzako pasadizo hau (K.a. III mendea), ezin konta ahalako artelanetan islatua eta garai guztietako testu kontaezinetan aipatua, famatuenetakoa da: hiritar zintzotasunaren sinboloa da eta haren bidez erakusten da gizartearen ongiak gizakiaren ongiaren gainetik egon behar lukeela, nahiz eta hautu honek ondorio lazgarriak izan norberarentzat.

Regulo, erromatar armadako jenerala eta kontsul ohia, preso dute kartagotarrek. Hauek nahi dute hark bake-hitzarmen baten alde egitea Erromako senatuaren aurrean, baina Reguloren ustez hitzarmen hori ez litzateke onuragarria izango Erromarentzat.

Carthaginienses a Regulo petiverunt ut Romam proficisceretur, pacem a Romanis obtineret et permutationem captivorum faceret. Sed cum ille Romam venisset senatui suasit ne pax cum Poenis fieret¹. Regressus ad Africam occissus est. (Ørberg II, 192)

Oharrak

1) *fieret*: *fio, fieri, factus est* aditza, balio pasiboarekin ('egina izan')

2. galdera: Egin ezazu *Carthaginienses ... faceret* esaldiaren analisi sintaktikoa, hura osatzen duten sintagmak eta perpausak identifikatuz.

1 puntu

3. galdera: Egin ezazu *proficisceretur* eta *senatui* hitzen analisi morfologikoa.

1 puntu

LATINA II

LATÍN II

B MULTZOA: Latinaren ondare lexiko eta kulturala gure hizkuntzetan identifikatzea eta garatzea.

Multzo honek 3 galdera nagusi ditu eta bakoitzak 1 puntu balio du; galdera nagusi bakoitzaren barruan zenbait aukera daude: aukera horietako bakarrari erantzun behar diozu kasu bakoitzean.

1. galdera (aukeratu 1 bakarrik):

1 puntu

- a) Adierazi zein diren latinezko *insulam* eta *corpus* hitzekin zerikusia duten gaztelaniazko terminoak (gaztelaniaren ondare lexikoari dagozkionak izan zein kultismoak izan), eta egin haiei buruzko iruzkina. Zer bilakaera fonetiko izan dute latinetik gaztelaniarako bidean?
- b) Adierazi zein diren latinezko *strictum* eta *fidem* hitzekin zerikusia duten gaztelaniazko terminoak (gaztelaniaren ondare lexikoari dagozkionak izan zein kultismoak izan), eta egin haiei buruzko iruzkina. Zer bilakaera fonetiko izan dute latinetik gaztelaniarako bidean?
- c) Adierazi euskarazko zein hitz ezagutzen dituzun latinezko *ficum* eta *potionem* terminoekin zerikusia dutenak, eta egin haiei buruzko iruzkina.
- d) Adierazi euskarazko zein hitz ezagutzen dituzun latinezko *tegulam* eta *pulso* -are hitzekin zerikusia dutenak, eta egin haiei buruzko iruzkina.

2. galdera:

1 puntu

Sortu ezazu testu labur bat (20-50 hitzekoa) esamolde hauetako bat erabiliz. Ondoren, azaldu ezazu aukeratutako esamoldearen esanahia.

- a) *Ad kalendas Graecas*
- b) *Alea iacta est*
- c) *Captatio benevolentiae*
- d) *Damnatio memoriae*

3. galdera (aukeratu 1 bakarrik):

1 puntu

a) Testu zati hau Plautoren *Miles gloriosus* obratik ateratakoa da. Kokatu ezazu pasarte hau obraren barruan (obra osoa irakurri duzula frogatzen saiatuz) eta eman ezazu zure iritzia Plautoren obrak erakusten dituen balioei buruz (50-100 hitz).

ARTOTROGO.— Zertarako kontatuko dizut zuri, Pirgopolinizes, gizakume guztiek dakitena? Zertarako kontatu bakarra zarela munduan zure ausardia, edertasun eta balentriengatik? Arrazoiz maitemintzen dira emakume guztiak zutaz, hain zara ederra; atzo paliotik tiratzen zidaten emakumeek hala zioten.

PIRGOPOLINIZES.— Zer zioten?



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

USaP

2025

OHIKO DEIALDIA

PAU

2025

CONVOCATORIA
ORDINARIA



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION

LATINA II

LATÍN II

ARTOTROGO.— «Hori Akiles da?» galdetu zidan batek. «Akiles ez, baina bere anaia izan liteke» erantzun nion nik. Orduan beste batek esan zuen: «Zein ederra den, ala Kastor! A zer nolako itxura dotorea duen; zein adats distiratsua! Zorte onekoak dira berarekin oheratzen diren emakumeak!». (Plaut. *Mil.* 55-65; itz. G. Bilbao).

b) Erantzun bi galdera hauetako bati:

b.1) *Prosa klasikoa: oratoria eta historiografia*: Laburtu prosa klasikoaren datu garrantzizkoenak, kontuan izanik genero honetako idazle esanguratsuenak.

b.2) *Emakume idazleak latindar literaturan*: Aipatu emakume idazle garrantzizkoenak, eta laburtu haien obretako datu esanguratsuenak.